



120 sagar mota: gutxi da



BOB EDMÉ

Hendaiako Abadia eremuan hainbat sagar motaren erakusketa antolatu dute

LEHENGO sagarrak biharko ondare gisa aurkeztu dituzte Hendaiako Abadia eremuaren kudeatzaileek. Bisitariek 120 sagar mota ikus eta dasta ditzakete abenduaren 12a arte. Kolore desberdinetakoak, handiak, txikiak, lodiak edo luzeak, hots, forma guztietakoak hedatuak dira Larretxea egoitzan. Tokiko sagar motak eta mota zaharrak

bildu dituzte, Ganix Grabieres kontserbatzaileak azaldu zigun bezala.

«Asmatzen ez zuten aberastasun horrek ikusleak harriturik uzten ditu», ohartu da Grabieres. Eta, alta, 120 sagar mota baino anitzez gehiago biltzen dituzte Lot-et-Garonne departamenduko zentroan, hala nola 600. Merkatuan sal-

tzen diren sagar moten hautu murritza aipatu zigun. Sagar horiek Atlantikoaren eta Mantxaren bestaldetik datozela ere azpimarratu zuen.

Jaleek gustu bat bilatzen dute. Gustu desberdinak ere bai. Merkatuan aurkitzen ez dituztenak. Haur batzuek erakusketa bisitatu zuten gu han ginela. Abadian dastatu sagarrak gustatu zitzaizkien gehienik, aitortu zigutenez. «Jendeak zuhaitz mota zahar horiek berriz landa ditzan» nahi dute Abadiakoek. Nahi duten saga-

Bisitariek 120 sagar mota ikus eta dasta ditzakete Abadia eremuan.

rondo mota eros dezakete Abadiako erakusketan. Sagarraren dastatzeak hautua lagun dezake.

Mota zaharren hedatzea

Sagarrondoak 1988an landatu zituzten Abadian. Baina Abadiako sagardiak berak bakarrik ez ditu mota horiek salbatuko, Ganix Grabieresen arabera. Gero eta bisitari gehiagok erosten ditu zuhaitz moten aldaxkak. Mota zaharren hedatzea eta ondarearen ez galtzea abiatu dute, beraz. Baserriko ekonomia tradizionalan gehienik landu zen fruitua da sagarra. «Sagar mota desberdinak sasoi desberdinetan bil daitezke, kontserba daitezke, gisa guztietara jan daitezke», esplikatu zuen Grabieresek.

Bainan sagarren irauteari ez dio kutsu nostalgikoa eta atzerakoa ematen. «Gaur egun badakigu zeren beharra dugun, bainan ez dakigu hemen-

dik hamar edo ehun urteren buruan zertaz behartuko garen», esplikatu zigun Abadiako kontserbatzaileak. Horregatik du garrantzitsutzat jotzen mota guztien irautea. Gaur egun interes berezirik ez duen sagar mota batek biharko birus baten erasoari ihardoki diezaioke, menturaz. Naturaren aberastasun guztien babestearen alde lan egiten du Ganix Grabieresek.

Eneko Bidegain

HENDAI